



4.3. DIRULAGUNTZA LERROA: BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA LORTZEA – 2021. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Bai Euskarari ziurtagiria lortzeagatik. Lehia bidezko konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko kopurua

Emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2021eko aurrekontuko partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada. Partida hori ondorengoa da:

1030.471.01.335.10 – dirulaguntzak: Bai Euskarai 500 €.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2021eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

Oro har, dirulaguntzaren kopuru osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak batuta.

Dirulaguntza eskariek, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren araberrako proportzioak mantenduz

3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Errenterian errotutako edozein pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

3.1.- Honako baldintzak bete beharko dira:

- Bai Euskarari ziurtagiria lortu izana, eta dagokion kuota ordaindua edukitzea.

3.2 Eskararekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Udalak emandako inprimaki normalizatua (Eranskin honetan agertzen dena) aurkeztu beharko dute, Oinarri Orokorren Laugarren Oinarrian aipatzen diren dokumentuekin batera, eta ondorengoekin ere:

- a) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztatzea.



b) *Bai euskarari* ziurtagiria lortu izanaren agiria.

c) Dagokion kuotaren ordainagiria.

4.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak egiteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra izango da, biak barne.

5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak eta dirulaguntzaren kopurua

2021ean Bai Euskarari ziurtagaria lortzeagatik, dirulaguntzaren kopurua urteko kuotaren %100 izango da. Ez da diruz lagunduko erakundeko langileei dagokien kuota.

Bai Euskarari ziurtagiria aurreko urteetan jaso zutenentzako, dirulaguntzaren kopurua aurtengo urteko kuotaren %60 izango da. Ez da diruz lagunduko erakundeko langileei dagokien kuota.

Dirulaguntza eskariek, horretarako jarrita dagoen kopurua gainditzen dutenean, hainbanaketa egingo da, eskatzaileek egin duten gastuaren arabeko proportzioak mantenduz

6.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den dirusarrera bidez.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2021 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.